

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1992ko Apirilak 10, 146. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**Marian Gil**



**ALFREDO RUEDA**  
Espezie  
desagerpenaren  
kontra lanean

# Arraina uretan bezala

Joseba



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



**umezaintza**  
HAUR-ESKOLA



## DATORREN IKASTURTERAKO AUKERA BERRI BAT!

• 4 hilebetatik aurrera •

- Instalazio berriak
- Haur hezkuntzaren etapa osoa
- Ordutegi eta egutegi zabala
- Jantokia
- Autobusa herriko auzo guztietatik!

J. L. Iñarra, 30 Tfnoa: 79 01 02 eta San Josepe auzoa, Tfnoa: 79 71 22

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:**  
Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**  
Arantzazu Loidi

**Erredakzioa:**  
Beñardo Kortabarria, Rósa Mondragon.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Kepa Oñiden. Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**  
Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**  
Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier  
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta  
Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,  
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,  
Atalaitakoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon  
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-  
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon  
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan  
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

**Inprimategia:**  
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**  
J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**  
ARRASATE PRESS

**Tirada: 5.800 ale**  
**Lege-Gordailua: 1124/88**  
**ISSN: 0214-4654**

**Frankeo kontzertatua: 37-60**

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo  
Saillaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

# Utopian barna

**F**rantziar lurralde-hauteskundeak pasatu ziren eta, ziur aski gehiengo batek espero ez zuen ezustekoa eman gabe. Ez bait dut uste inork pentsatuko zuenik, Ipar Euskal Herrian euskaldunek emaitza onik aterako zutena. Beraz, hango abertzaleei dagokienez, normaltasuna izan da nagusi, hau da, emaitzei begira lehen bezain gaizki atera zaizkigu.

Paul Dutournier, Sarako alkate ohiarekin mintzatu nintzen orain dela gutxi, Ipar Euskadiren nortasunik ezaz. Gogoratzen ditut bere hitz garratzak, bere etsipena, hango abertzaletasunaren ezaria aztertzean. Baiezatu egin da iragan hauteskundeetan, ohizko irakurketa politikotik bestelako ondorioak atea badituzte ere. Baina hori ere normalizat har daiteke, hauteskundeetako biharamonean denak baitira garaile.

Hego Euskal Herriko abertzaletasuna une gogor eta antzuak bizitzen ari denean, iparraldeko anai-arrebak are gorriagoak ikusten ari dira, zurrumbilo zentralistak irents ez ditzan. Nik ez dakit historiaren trena jadanik galdua ez ote duten, hain zuzen ere estatuez gaindiko integrapen solidoago bati buruz pentsatzen hasteko. Eta hitz horiek, errealitate gordin baten ikuspuntutik idazten ari naiz, zeren -esaterako- ehiztarien

ordezkaritzak abertzaleenak baino bi bider gehiago ateratzen duenean, hango euskaldunek etorkizuna beltz xamar dutela aitortu behar baita.

Hauteskunde horiek gutariko askori zer pentsaturik ekarriko zioten, zorioneko Euskadi aske eta batua hezurramitu arte hegoaldearrok gora begira jarraitu behar ote dugun galdetuko zietelarik euren buruei. 1992ko urte amaierak ez digu euskaldunon arteko mugen desagertzea ekarriko; alde batetik, frantziar eta espainiar estatuek eragotzi egingo dutelako; eta bestetik, ... zer egin dezakete iparraldekoek, botoen 8'2%arekin?

Euskal Herriak -inoiz aske eta batua izango bada- gaurregun Euskal Herriko Autonomi Elkarte osatzen duten hiru lurraldeetatik hasi beharko luke bere bidea. Osmosiseko efektuak eragin lezake gainerakoa. Baina, jaunok!, badugu oraindik horrela pentsatzeari saldukeria derizkiona eta, beraz, eraikitze prozesua geldirik daukate, erabat, inoiz iritsiko ez zaizkien lehengaien zain. Eta, bestalde, badira beste batzu, inoiz hizkera berdina erabili ez dutenak, eta hemengo erreibindikapen-antzezpenari burumakurketarik lotsagarrienaz ematen diote jarraipena Madrilen.


JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

**Memesa**  
**79 42 22**



**Zatoz gure gazte moda ezagutzera**

**Italora Lizentziatua, 5**  
**Tfnoa: 77 00 81**  
**ARRASATE**



Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



**DANKART**

Estetika eta Ileapaintzaile  
Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bitor Sarasketa, 7-3.

Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80

### Santa Barbara, eskailerak eta elbarriak

Oso ondo hartu nuen Santa Barbara konpontzen hasi behar zutela zioen notizia. Betidanik pentsatu izan dut penagarria dela hain leku polita horrela egotea, kontuan hartuta gainera, herri honetan dugun berdegune falta izugarria.

Hasieratik jarraitu dut obraren prozesua: lurra mugitu, bideak markatu, estanketxoa egin... oso ondo zihoala ematen zuen... banuen hala ere kezka bat: "Ez dituzte ba, eskilerak jarriko Santa Barbarara igoteko... Hau hasiera izango da, gero jarriko dituzte ranpak — esaten nion neure bururari —, akordatuko dira elbarriekin, eta ume-kotxeekin doazen pertsonekin..."

Eguna joan eta eguna etorri, aurrera egin zuten obrek eta hor jarraitzen dute eskilerek eta ez dira ranpak egiten hasi.

Hauxe da Udaleko Hirigintza zerbitzuko ei galdetu nahi niekena: ranparik jarriko dute? edo bestela, pentsatu duzue bide alternatiboren bat?

Ez dakit aurreratu egin naizen nere kezkekin, baina, hola ez bada, barkaezina izango litzateke gaur egun halako hutsa egitea obra publiko baten (hau da, denon artean ordaindutakoa, elbarriek barne).

Nire zalantzak funtsik bakoak izatea gustatuko litzaidake; bestela, hasitakoa ondo bukatuko duzuela espero dut.

Beste barik, agur.

G. A.

### Zaborra biltzeko puntuak

Denbora gutxi da Udalak herriko bazter askotan zaborra biltzeko puntuak jarri dituela. Printzipioz ados nago ideiarekin, garrantzitsua iruditzen zait eta zaborra jaso behar dutenek jasotzeko orduan erraztasunak izateko eta utzi behar dugunok uzterakoan kontrol eta ordena barruan utz dezagun.


Idea ondo dago, baina ez zait iruditzen ondo aplikatuta dagoenik, jarri diren piboteak arriskutsuak dira zenbait tokitan eta. Esatebaterako, Altamiratik behera edo Munarretik kotxez pasatzeko piboteak ez daude bat ere ondo jarrita, eta kotxearekin jotzeko arrisku bizia dago.

Behar bada puntu horiek eta nola jarri diren errebisatu egin beharko lirateke.

J. R.

### Oharra:

Aste Santua dela eta, datorren astean ez dugu Arrasate Press-ik kaleratuko. Apirilaren 24ean berriz ere zuekin izango gara. Ondo pasatu jaiegunak!



**ARAMAIO**  
okindegia

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**VE ECUADOR**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

# Aste Santuan zer?



**Paula Torres**  
(Etxekoandrea)

Ez dut kanpora irtetzeko ohiturarik Aste Santuetan. Aurten ez dut irtengo eta iaz ere ez nuen irten.



**Migel Angel Mondragon**  
(Fagorreko langilea)

Errioxara joateko asmoa dut. Nire emaztea hangoa da eta aukera dugunean, bertara joateko aprobetxatzen dugu.




**Unai Galdos**  
(Ikaslea)

Aurten ez naiz kanpora joanez baina beste batzutan joaten naiz. Iazartzelona joan nintzen.



**Ines Gardoki**  
(Zeziagako langilea)

Ez dut ohiturarik kanpora irtetzeko. Aramaiora joango naiz eta bertan pasako ditut egun horiek.



**Kristina Gonzalez**  
(Etxekoandrea)

Ziurazki hemen geldituko naiz. Beharbada egunpasa joango naiz baina ez gehiago, ez lau egunetarako.



**Lorenzo Denova**  
(Ekonomista)

Bai, kanpora joango naiz, konkretuki Ciudad Realera. Ahal dudanean bertara joaten naiz urtero.

## HOSTAL LASA

Jatetxea

Ostiral eta larunbatetan gauetzabalik.  
Asteleheneretan: itxita

Bidekurutzeta, 36 Tfnoak: 76 10 55 / 76 20 29  
BERGARA

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALTZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Ibérduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO


ZENTRUAK	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEAREN ZAKO

INFORMAZIOA	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

### MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



10

## OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Delicatessen" (5-7.30-10).
- Kontzertua, Gorosarri abesbatzarekin San Juan Bataiatzailea Parrokian, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Institutukoko moda desfilea eta jazz dantzaldia, arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Mendiko zinema-zikloa, "Laberinto urdina" eta "Haizeen mendia", San Viator Txikiko aretoan arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaeuz: Guallar, Bergara.

**Kir**  
**Agenda**

## Futbitoa

- Zaldibarko futbito txapelketaren barruan, bigarren faseko azken hamabi partiduak, larunbata eta igande goiza bitartean.
- Cnes.Brues eta Electricidad Cover taldeen arteko partidua, larunbatean Iturripen arratsaldeko 7.30etan.

## Pilota

- Deba Arroa pilota txapelketaren barruan, Eskoriatzaren aurkako partiduak. Eskoriatzan, igandean goizeko 11etan.

## Eskubaloia

- Arrasate Eskubaloi eta Bergara taldeen arteko partidua, larunbat arratsaldeko 5.30etan Iturripen.

12

## IGANDEA

- Zinea: Alai: "Pesadilla final" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Estella, Bergara.

13

## ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Pesadilla final" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Mozos, Bergara.

14

## ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Delicatessen" (7-9.30)
- Kontzertua, Arrasate Musikal Orkestra Sinfonikoarekin, San Juan Bataiatzailearen parrokian, 8etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Camacho, Bergara.

15

## ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaeuz: Puy, Bergara.

16

## OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

## Liburuak

### • AED lehiaketak

Aurten AEDko lehiaketetan irabazle atera diren lanez osatutako liburua dagoeneko salgai dago eta 1.000 PTAtan eskuratu ahal izango da. AED, Zabaltzen eta Hire liburudendan aurki daiteke. lazkoa erosi nahi izanez gero ere, izango da aukerarik.



## Mendia

### • Pirineotarako irteera

Datorren astean, 16tik 20ra, mendi irteera egingo da Aretxabaletako Murrukixok Pirineotara, Linzara konkretuki. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko Murrukixo Mendizale elkartera zuzendu.

### • Besaide

Igandean Lizarra, Berariain eta Uharte Arakil herrietara irteera bat antolatu da. Antolatzailerak Besaide mendizale elkarteak da. Prezioa 800 pezetakoa bazkideentzat, 1100 ez direnentzat eta 400 gazteenentzat.

## Ikastaroak

### • Igeriketa

Irekita dago Aretxabaletan



## Galizia eguna Arrasaten

### Lehen aldiz ospatuko da gure herrian

Astebukaera honetan, ospatuko da lehen aldiz Arrasaten Galizia Eguna. Beste herrietako galiziarrek ere espero dira San Andres auzoan burutuko den jai honetan. Gaur, gaueko 11etan Pontevedrako *D' Tacon* orkestak hasiko ditu ospakizunak. Bihar larunbata goizeko 11tan Gudari Plazan, Eibarko Os Galaicos taldeari harrera egingo zaio eta 12.30etan lehen emanaldia eskainiko dute, eta arratsaldeko 6.30etan bigarren eskainiko dutela espero da. Gauean "*Ciudad de Pontevedra*" orkestarekin beste jaialdi bat izango da.

Igandean, goizeko 11etan auzoan zehar izango den kalejiraren ondoren, Gudari Plazan *Os Galaicos* taldearen kontzertua izango da. Arratsaldean beste bi ekitaldi izango dira, alde batetik *Costa Gallega* eta bestalde *Plaentxi* eta "*Raices gallegas*" bikotearena.

Jaiaren antolatzaileek, inguruko galiziarrek batuko dituen komunitatea osatzen hasteko lehen pausoak eman nahi dituzte.

izango den igeriketa ikastarorako izena emateko epea. Bazkideek 4.000 eta ez direnek 5.900 pezeta ordaindu beharko dute. Maiatzaren 4ean hasi eta 29an bukatuko da nahiko jendek izena emanez gero. Plaza mugatuak dira eta izena emateko Kirol-Etxera jo dezakezue edo telefono honetara deitu: 79 64 61.

### • Argazkigintza

Arrasateko Udal Gazte zerbitzuak antolatuta argazkigintza ikastaroa izango da apirila eta maiatzean. Klaseak astelehen eta ostegunetan izango dira 7etatik 9etara.

### • Musika ordenadore bidez

Ordenagailu bidezko musika ikastaroa ere antolatu du Gazte Zerbitzuak. Matrikula 1000 pezeta izango da eta apirila eta maiatzean burutuko dira klaseak. Informazio gehiago lortzeko bulegora jo dezakezue.

## Deialdiak

### • 60.eko kintoak

Bihar larunbata, urteko bigarrena ospatuko dute 60.eko kintoek. Eguerdiko 12.30etan San

Frantziskoko Parrokian izango den mezarekin hasiko dira ospakizunak. Ondoren, Musakolako jatetxean bazkaria egingo dute. Izena emateko telefono hauetara dei egin dezakezue: 79 61 64, 79 25 24, 79 19 73 eta 79 31 85.

## Txapelketak

### • Musa

Datorren 25ean, mus txapelketa antolatu da Arrasateko Arrano elkarteak. Sariak 30.000 lehenentzat, 20.000 bigarrenentzat, 15.000 hirugarrenentzat eta 10.000 laugarrenentzat.

## Hitzaldiak

### • Alkoholtzale anonimoak

Arrasateko Alkoholtzale Anonimoek 17. urteurrena betetzen dutela eta, hitzaldi bat izango dute, larunbatean, arratsaldeko 7etan, Udaletxeko pleno aretoan. Elkarteko kideak, errehabilitazio fasean daudenek



eta euren senideek hartuko dute parte hitzaldi honetan. Ikus-entzuleari itxaropen mezua zabaltea da helburu nagusia eta horretaz gain, alkoholtzale guztiak laguntza eskatzera animatzea. Alkoholtzale Anonimoetako kide izateko ez da aparteko ezaugarririk bete behar, ez eta inolako kuotarik ordaindu behar ere, eta alkohola uzteko nahia bakarrik da derrihorrezkoa.

“Pentsioen rebalorizazioari buruz, Lagun Aroko Kontseilu Zuzendariak kanpoko IPCaren %70eko rebalorizazio portzentaia proposatzen du. Albistea nahasi samarra iruditzen zait eta proposamena diskriminatua, eragina jasaten duen taldearen ordezkarrizarik ez duen Organu batek egina denean batez ere.

Proposamena egokia izan edo ez, nire ustez erreprezentaziorik eza ez dator kooperatibismoaren filosofiarekin bat.”

(Francisco Alvarez Serranok TU-Lankide Aldizkarian)

“Buruak ez du euskara irauarazi, baina bihotzak ezin du gehiago’. Orain arte sentimendua izan da euskara mantendu duena, arrazionalizatu gabeko rutina. Baina euskararen aldeko jarrera modu arrazionalizatuan egin eta beste mekanismo batzuk martxan jarri ezean, erdarara pasatzea da gauzarik arruntena. Sentimendu gabe ezin da ezer egin, baina sentimenduaz bakarrik ere ez. (...) Euskararen inguruko erreflexio baten beharra duen pertsonari materiale errazagoa eskaintzen ahalegindu gara Jaztenekin.

(...) Batzuren ustetan kapitaletatik kanpo egiten den guztia susmagarria da. Jende askok esan ohi du AEDK herri mailako ikuspegia duela eta ondorioz, nazio mailako ikuspegia eragotzi egiten duela. Hori ez da horrela. Bere herria maitatzeko gauza ez denak ezin du nazioa maite eta besterik ez dago”.

(...) Herri mailako kontzientzia duenak nazio mailan aporta dezake, baina goikoaren berri bakarrik duenak ez du ezer aportatzen, parakaidista bat da. Beraz, nazio mailan euskarak ez du aurrera egingo herrietan egin ezean”.

(Julen Arexolaleibak EGINen)

**Ze motatako zerbitzu eta zer harrera du Monterrongo haur liburutegiak?**



Haurrak ikastoletatik irten eta zuzenean etortzen dira liburutegira, beraz, orokorrean 16.45tik 19.15etara gainezka egoten da. Batzuk ikastoletan bidaltzen dizkieten lanak egitera etortzen dira, horretarako gehienak kontsultarako dauden liburuak erabiltzen dituzte, beste batzuk, ordea, irakurtzera edo marrazkiak egitera etortzen dira, eta gero badaude mailegu zerbitzua soilik erabiltzen dutenak ere.

Adin desberdinetako jendea etortzen da. Eskolako lana egitera 9-14 urte bitartekoak. Irakurri edo mailegu zerbitzua erabiltzen dutenak adin guztietakoak dira. Bi liburu mota desberdin daude, “kontsultarako liburuak”, gehienak atera ezinak direnak eta C.D.U.(Codigo decimal universal) bitartez antolatzen direnak. Eta bigarrenez, literatur liburuak. Arlo honetan, eskaintza oso zabala dago, gai, idazle eta gaur eguneko idazle garrantzitsuenak eta argitaratutako azken liburuak biltzen saiatzen garelako. Liburu guztiak apaletan daude kokatuta, bakoitzak kolorezko eransgailu bat du: gorria, urdina, larua eta berdea. Hauen bidez, zein adinetara zuzendua dagoen adierazi nahi da.

Haur liburutegiak ekintza bereziak antolatzen ditu: idazle eta marrazkilari famatuen presentziaz (Pello Añorga, Asun Landa...), ipuin kontaketak, ume txikien bisitak jasotzen ditugu, Eskoriatzako Irakasle Eskolak antolatzen duen haur eta gazte literaturaren mintegian parte hartzen dute.

ELENE OROBENGOA ORTUBAI

MONTERRONGO HAUR LIBURUTEGIAREN ARDURADUNA

**Berango**



**Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

**PUB HAIZEA**



**Pando**

**PINTURAK eta PAPERETAPENAK**


Aragoi, 6-3. Esk. ARRASATE Tfnoa: 77 00 39





### Nekane Iglesias PSOeko zinegotzia

Buesak esandakoa eritzi pertsonal eta subjektiboa da. Kontua ez da eritzi gratuitoak bota eta euskera arma jaurtigarri bihurtzea, gizarteko errealitatearekin bat Jaurlaritzak gaur egun zer hizkuntz politika ezartzen duen, egokia den ala ez erabaki eta horren arabera, alperrikakoak diren enfrontamenduak, euskarari mesederik egiten ez diotenak, sor ez daitezen neurriak hartzea.



### Juan Jose Uriarte Udaleko Euskara Batzordeburua

Euskotarren aberria Euskadi dela hartu behar da kontuan eta euskera

## Ingelesa versus euskara?

“Lan edo giza ikuspegitik, beharrezkoagoa da euskal haurrak euskara ezik, ingelesa ikas dezaten”.

(Fernando Buesa Hezkuntza Sailburuak)

euskotarren hizkuntza. Buesa jauna abertzalea ez denez, ez zait harrizten hitz hoiek esatea eta grabea da, euskarari mesede gutxi egiten diote eta. Euskera, nire ustez, Euskadiko lehen hizkuntza da, gero datoz besteak.



### Txaro Iraeta Hezibide

Nire ustez, Buesa Jaunak adierazpen hauekin gure herri honekiko duen hoztasun eta begirune falta agertu du. Bere pentsakera pertsonala izan daiteke, baina onartezina da Euskal Herriko agintari batek horrela pentsatzea. Agintari bati eska dakiokeen gutxiengoa bere herria maitatzea da.




### Elizabeth Madinabeitia Ahizke-Cim-eko zuzendaria

Euskera identitate euskaldunaren osagarri garrantzitsuenetako bat dela uste dut.

Ez da egokia hizkuntza hauen artean lehenetasunak ezartzea, euren inplikazioengatik errealitateak ezin bait dira konparatu.

Gaur egun, mundu dinamikan integratu nahi duen gazte euskaldunak ez bakarrik bi horik hitzegin behar ditu, zenbait eta hizkuntza gehiago hitz egin, errazago egingo zaio, gainera, besteak ezagutzea eta beste herriekiko komunikazioa.



### F. Jabier Aresti Hezkuntzako Batzordeburua

Buesak egindako deklarazio tamalgarriek, Burgosen bizi izan nintzeneko garaian gertatu zitzaidan gauza bat gogorarazten didate.

Egun batean medikuarengana joateko beharra izan nuen Asierrekin, nire semearekin; ez zitzaidan arraroa iruditu medikuak umearen izena entzuterakoan aldrebesa iruditzea (1974a zen), baina benetan haserretzen ninduen, euskaldunok gure hizkuntzarekin jo ta ke gabiltzala entzutea izan zen, berak nahiago zuela bere semeak ingelesa ikastea txinoa baino, euskera ai-

patu beharrean. Nik esan nion, gustatuko litzaidakeela nire semeak euskara, ingelesa eta ahal bada, txinoa ere ikastea.

Gaizkiesan hauek mediku batek urte haietan Burgosen egiteak haserretzen gaitzake, baina Hezkuntza Kontseilariak eta Euskal Gobernuko Lehendakariordeak gaur egitea onartezina iruditzen zait.



### Jesus Garmendia Irakaslea

Iruditzen zait gaur egun ingelesa eta gaztelania ikasi behar direla kanpo harremanetarako beharrezkoak direlako; eta euskara, euskaldunak garelako. Hizkuntzak bata bestearen aurka jartzea linguistikoki defenda ezina da eta politikoki, berriz, irresponsablea. Baina hori egiten duena euskal hezkuntz sistemaren arduraduna denean, zer esango dizut nik, izugarriko kontraesan baten aurrean gaude.

## BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,  
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

**□ Paper bilketa larunbatean**

Beste askotan bezala Orkatx Skaut taldeak larunbatean, goizeko hamarretatik aurrera, diru apur bat ateratzeko, paperak biltzeari ekingo dio. Herritarren laguntza beharko da eta Orkatxeko asko ezkertuko dute paperak atarrietan uztea.

**□ Lanbide hastapeneko ikastaro berriak**

Deba Garaiko Udal Elkarteak aurtentzen Lanbide Hastapeneko sei ikastaro-mota berri jarri ditu martxan, eskolatu gabeko 16 eta 17 urte arteko gazteentzat. Ikastaroak urtebeteko iraupena izango dute eta mekanika, elektrizitatea, sukaldaritza eta harozgintzari buruzkoak izango dira.

**□ Fagor eta ingurugiroa**

Fagor Ederlanen, ingurugiroari buruzko ikerketa egiten ari den lan-talde bat jarri da martxan. Lan talde horrek Ederlanen ateratzen dituen ondorioek, Fagor taldeko beste enpresetan neurriak hartzeko balio izango dute. Beraz, lanaren helburua kutsadura non, nola eta zenbat sortzen den jakitea da. Ateratako ondorioekin, aurrera begira gestio-planak egingo lirateke. Oraingoz ikerketa bere lehen fasean dago, Fagor Ederlanen dagoen kutsadurari buruzko datuak biltzen. Fagor Ederlan aipatu denez, esan behar dagoenezko prest dardela bertako langileek aurrerantzean eramane beharko dituzten jantzi berriak. Irudi kontuak.

**ZORIONAK EZKONBERRIEI**

Aitor Aranburu Agirre & Margarita Pinillos Arejo. Apirilaren 4ean. Elizaz.

**ONGIETORRIA JAI OBERRIEI**

Tania Alvarez Sanchez, martxoaren 31n. Gorka Gorrosadi Madina, apirilaren 4ean.

# Txandaka

## MUSIKA BIZI IZATEKO ERA BERRI BAT

Zoritxarrez musikari ez zaio behar lukeen inportantzia ematen. Esperientziak erakutsi digu musikak eta honen barruan, erritmoak, eragin positiboa daukatela haurraren gainontzeko esparruetan: irakurketa-idazketa, psikomotritzitatea...



Pilare Fdez. de Arroiabe (\*)

Beraz, metodoaren helburua ikasleek musika zer den ikastea da, barnera eta, ondorioz, bizi izatea.

Metodoaren ardatza erritmoa da. Erritmo hau bameratzeko haurrak gorputza bera aztertu eta sentitu behar du, geroago inguruan dauden hotsez jabetzeko. Hau lortzeko ikastolako tailerrean beraiek ekartzen dituzten hondakinekin egiten dute hainbat musika tresna; horrela ikasten dute musika ez dela soilik dendetan erosten den gauza, edozein material erabiliz zarata eta erritmoa atera daitekeela baizik.

Esan daiteke ume gehienengan piztu dela musikarekiko zaletasuna; hasieratik aukera ematen zaie abesbatzan parte hartzeko nahiz eta saio

hauek klasez kanpo burutzen diren. San Viator ikastolak hiru abesbatza talde prestatzen ditu adinen arabera. Abesbatzatik kanpo gelditzen direnak, gehiegizko ume kopuruagatik, ikastolan izaten diren jaialdi musikaletan hartzen dute parte beti.

Bestetik, umeak ikasten dituen kontzeptu guztiak bereganatzeko, xirula lantzen dugu. Xirularen hezkuntza lehengo mailatik sartzen da notak ikasten doazen neurrian, horrela, abesti sinpleetatik konplexuetarantz goaz. Horren helburua ez da xirula jotzen ikastea soilik, horrek dakarren garbitasuna eta xirularen aurreko gorputzaren postura egokia baizik.

Guzti honen helburua, da umea kontura dadin musika ez dela bukatzen ikastolatik irtetzen direnean, segida baduela kanpoan, ordea eta bere kabuz bereganatu duten bizi-pen musikala bestelako esparruetan isladatzea.

(\*) SAN VIATORREKO IRAKASLEA

**HUETO Doktorea**

**Eztarria, sudurra, belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00


Olarte kalea, 43 Arrasate



**J. Ramón Otamendi**

**HARATEGIA**

Ferrerrias, 20 • Tel. 79 62 28  
**ARRASATE**



Apirilean erabakiko da Uharkaperekin zer egin

## Uharkape atzera ala aurrera?

*Goiko bidea lehen bait lehen zabaltzeko asmoa dago*

Udalak, enpresa eraikitzaileak, Azatza auzoko kooperatibak, Uharkapeko auzokideen elkarteak eta Uharkapeko proiektua egin duen Euroestudios enpresak akordioaren bat lortu beharko dute apirila bukatu aurretik, Uharkapeko auziari irtenbideren bat emateko. Dirudienez, Uharkapeko auzian zer ikusia duten alde gehienak ados daude auzia konponduko duen epaile bat izendatzeko, Euroestudios enpresa izan ezik. Jose Mari Loiti, Hirigintza Batzordeburuak adierazitakoaren arabera, badirudi Euroestudiosek arazoren bat duela aseguruaren aldetik eta horregatik oraingoz ez duela akordioa sinatu nahi. Sinadura hori lortzeko, apirilaren azken eguna izendatu da. Akordiorik lortuko ez balitz, datorren hilean erabaki beharko litzateke Uherkapeko proiektuarekin zer egin, asko luzatzen doan auzia da eta.

Akordioa alde batera, badirudi Altamirara daraman bidea, Jose Luis Iñarra pasealekua, ahalik eta lasterren irekitzeko asmoa dagoela. Izan ere, bide hori itxi zenean, El Ferial ikastetxetik hasita eskailerak egin ziren gauzak laster konponduko zirela pentsatuz. Egia esan, eskailera horiek oinezkoentzat nahiko gogor egiten dira, asko izateaz gain oso aldapatsuak dira eta.

Urtarrilaren hasieran, Udaltzaingoak, Udalaren aginduz ikerketa bat egin zuen egunean zehar eskailera horiek zenbat jende erabiltzen zituen ikusteko. Zenbaketa, gutxi gorabehera 7etatik 13.00etara eta 14.00etatik 20.00etara egin zen eta batz bestea, denbora epe horretan eskailerak 500 pertsonak erabiltzen zituztela ikusi zen. Erabilpen hori ikusita etorri da Altamirara daraman bidea ahalik eta lasterren konpondu beharra.

## Usteak uste

**U**dal plenoari buruz idatzi nuen behin, luzeegiak zirela eta laburtzeko, gai-zerrenda osoa eta gai bakoitzari dagokion dokumentazioa irakurri beharrean, hobe litzatekela desadostasunik zegoen edo ez galdetzea proposatu nuen. Joan den asteko plenoan argi gelditu zen ez didatela kasurik egin eta oraindik lege tramite aspergarriak betetzen dabiltzala. Eurentzat okerrago.

Eta berriro ere legearekin sartuko naiz. Aber, ze zentzu dauka botazio bera bi aldiz egin beharrak? Oinezkoentzat eta auto txikia duginontzat behintzat, bat ere ez! Legea egin zuenak zein mailatan jartzen zituen gure botoen bidez Udala eta gainontzeko instituzioetan dauden andre-gizonek? Auskalo! baina ez oso goian, hori segurua.

Bigarren botazio bat egiteak bi gauza esan nahi izan ditzake: bata, lehenengoan A esan duenak bigarrenengan hanka sartu eta B esateko esperantza izatea; bestea, lehen eta bigarren botazioaren arteko tartea txantxulloren bat egiteko aprobetxatu nahi izatea. Bata edo bestea ez dira joko garbiaren eredu, legea egin zutenek ere, seguruen, ez ziren eredu hori izango.

BEÑARDO KORTABARRIA

**URONDO**  
elektrizitatea



Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak




**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

# BAINUJANTZITAN ESPEZIALISTAK

# NEREA



Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa  
metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko  
armairuak**  
**Lan egiteko aulkiak**

# FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

# UDABERRIA ESKAINTZA ONENAREKIN DATOR




**KASBET**  
Larruzko  
errefortzu eta  
lokarridun botak.  
Krambel-eko  
barruko forroa eta  
plantila  
anatomikoa.  
Hikkory-zko zola.  
35etik 40  
6.600 PTA  
41etik 45era  
7.500 PTA

# LORAMENDI KIROLAK



**MAKALU ALU**  
Nylon aluminizatuazko sapa bikoitza.  
P.E. zko zoru eta nylon-algodozko bar-  
nukaldea.  
Moskiteradun atea  
Beira-zuntsezko makila kateatuak. Pisuak  
4.500 g  
13.900 PTA



**DAKAR**  
Dakar 140

Pisuak: 7.500 g 10.900 PTA

Dakar 170

Pisuak: 10.250 g 12.900 PTA



**CANYON**

Kanpotik nylonezko  
ura irristatzeko eta  
algodozkoa  
barnekaldetik.  
Hollowfiber betetik.  
+20C° +1C°erako  
konforta  
Pisuak: 1.800 g  
5.900 PTA

**Kanping, hondartza, mendia... ZATOZ KATALOGOA HARTZERA!**



Olarte kaleko Udaletxe zaharraren eraikuntzan talde bat baino gehiago sar daiteke

## 17 elkarte lokalaren zain

### Zail izango da guztiei erantzun aproposa ematea

Gaur egun, mota guztietako hogeitamaika kultur elkártek egiten dute lan Arrasaten; horietatik, askok lokal eskaria egina dute Udalean. Udal lokalik lortzea nekeza izango da, Ospital zaharreko obrak egin arte eta Umezaintzak Altamiran duen eraikuntza libratu arte. Dena dela, ahal denean, aipatutako bi eraikuntza horiek eta Olarte kalean orainago arte Udaletxe izan zena kultur taldeentzat erabiltzea litzateke Udala-ren asmoa.

Goikobalu, Arrasateko Gaiteroak,

Trikitilari Eskola, Arrasate Musikal, Txalaparta taldea, Aizpurutxo hankapalo taldea, Arrasate Zientzia Elkartea, EKI, Eguzki, Komite Internazionalistak, Arrasateko Antimilitaristak, Orkatz Skaut Taldea, Gaztetxea, Arrasate Komunikabideak (ARKO), Hamabostaldi taldea, Mambo-1, Saskibaloia taldea, Halterofilia taldea eta Corazón de Encina lirarteke gaur egun lokal eskaria egiten duten elkarteak. Kopurua ikusita, zail izango da guztientzat toki aproposa aurkitzea.

#### □ Herriz-herriko 24 saltoki

Udaleko Zerbitzu azokako 28 herriz-herriko sailak saltokiak subastara atera zituen martxoaren 27an. Hauetatik 24k badute adjudikatzailea eta beste 4k hutsik gelditu dira. Asteleheneko Gobernu Batzordean sakonago aztertuko da gai hau. Adjudikazioa zehaztu ondoren, saltokien kontratua 2000. urterarte luzatuko da.

#### □ ARKO, AED eta Udala


Arrasate Komunikabideak elkarteak eta AEDk aste honetan sinatu dute Udalarekin urte guztirako laguntza ziurtatuko duen hitzarmena. Horren bidez, Arrasate Press eta ATBk egiten duten lanerako dirulaguntza bezala Udalak 30 milioi emango ditu eta AEDntzat 12 milioi térdi, urte osorako. Gainera, Arrasate Press eta ATB kokatuko diren lekuko alokairua, argia, garbiketa eta altzariak ere Udalak ordainduko ditu.

Sinadura ekitaldian Xabier Zubizarreta, Juan Jose Uriarte Joxe Mari Mujika eta Mikel Irizar bildu ziren.



14.30 - 16.00

# KALE KANTOIAN



HERRI Irratia



Radio POPULAR  
GIPUZKOA



Laxaro  
Azkune

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8



Larunbatean Aramaioko Barajuengo auzoan bertso-afaria izan zen. Bertara **Egaña** eta **Lizaso** hurbildu ziren. Bertako elkartean izan zen afarian, jende ugari bildu zen eta afarian zehar giro aparta izan bazen, zer esanik ez bertsotan hasi zirenean.



Mertzedarien 100. urteurrena ospatzeko ospakizunetan oroigarri banaketa egin zen. Ezkerretik hasita **Ana M. Plazaola**, **Rosario Remon**, **Pilar Kerejeta**, **Arantxa Belar**, **Mari K. Lafuente** eta **Pilar Zabaleta**.




San Juan auzoko plazan **zume negarti handi bat bota** zuten pasa den larunbatean. Lana burutzeko beharrezkoa izan zen motose-rra eta kamioiaren laguntza. Bere ordeztan, beste landare bat sartu zuten.

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko aldea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



*Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak*

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99



**Izen**  
**PROPIOAK**

● **Liher Larrea**, 18, arrasatearra da Soraluzeko Ametsa ikastolako bertsoeskola-laren arduradun, 10-13 urte bitarteko neska-mutikoeekin lan eginez. Liherrek Almenen eta Arrasateko Eskola Politeknikoak egin ditu orain arteko ikasketak.

● **Santos Azkoaga**, 61, enpresari arrasatearra paper pintatuen enpresa mixto bat sortu du Letoniako Riga. Santosek aurretik pintore ibili zen arren, paper pintatuen enpresa eta opari denda ireki zituen Gasteizen orain 20 urte inguru.

● **Jose Luis Idigoras**, 45 eta **Jose Ramon Arkaux**, 37 denboraldiaren bukaera arte Mondra entrenatuko dute. Biak etxeko gizonak dira, Mondrak kategoria desberdinetan duen taldeetan jokatutakoak eta futbolari izateari utzi ondoren, entrenatzaile bihurtutakoak. Kadete eta jubenil mailako taldeak entrenatu dituzte batez ere, Idigorasek bi urtetan Mondrako lehen taldea entrenatu bazuen ere.

Hilabete bete eta etxean **Apotzagako hirukiak**. Mikelek inkubadoran egin ditu egun batzuk. Argazkian bere anaia **Jonen** besoetan eta **Joseba** eta **Eneko**, berriz, amaren altzoan.

**El Salvador-eko pake akordioa ospatzeko**, hitzaldi eta afaria egin zen joan zen larunbatean Arrasateko Arrano elkarteak. Bertan, Pakito Arriaran omendu zen eta FMLNren ordezkariak El Salvador ezagutzera gonbidatu zuen Pakitoren ama. ▶



**BAZEN GARAIA, KALEAN DAGO!**

**LUR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA**

10 ale, 120.000 hitz, 500 mapa, 1.500 marrazki, 8.000 argazki

**INFORMAZIOA:**

**Lurdes Berasategi**. J. L. Iñarra, 30. Tfnoa: 79 20 19

Konpromezu barik LUR HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOAri buruzko informazioa jasotzea nahi dut

Izen-deituak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Tfnoa: .....

**BAKARRA EUSKARAZ!**





Egun batzuk direla, **San Viator ikastetxeko bisita** izan genuen Arrasate Pressen. Koldo Rodriguez irakaslearekin etorri ziren eta ATBko aurkezleak ikasleei bere etxea ere badena erakusteko aukera izan zuen.



Pasa den astean **Luesma**, Euskojaurilaritzako Lan Departamentuko sailburua izan zen Arrasateko lantegi batzuk bisitatzen. Konkrétuki, Saiolan, Ikerlan eta Fagorreko instalakuntzak bisitatu zituen.

## Fotodenuntzia

la astero gure aldizkarian Fotodenuntziari tokitxo bat egiten diogu. Salatu daitekeen zerbait ikusten baduzue, telefonoz deitu eta gu berehala joango gara argazkia ateratzera. Ea bada, dei ugari jasotzen dugun, guztion mesederako izango da eta.


## Import Arrasate.

Astore kirol-jantzien egileñ lantegian bildu ziren joan den astean **Eli Galdos** Diputatu Nagusia, **Xabier Zubizarreta** Arrasateko Alkatea, **Ertzantzaren ordezkariak** eta beste hainbat pertsonaia ezagun. Bisitaren helburua, Uribesalgo anaiak aurrera ateratzen ari diren lantegia ezagutzea eta aurrera begira zein asmo duten ikustea. ▶



20.30 - 21.00

# MUGAZ GAIN



HERRI Irratio



Radio POPULAR  
GIPUZKOA



Tem  
Auzmendi

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8





# Presaz da ona

Atezainak baloia heldu bezain pronto ateratzen duenean, bere taldea galtzen doala esan nahi du normalean. Bestela, futbitoan ez da presarik izaten eta askotan denbora galtzeko joera ikusi ahal izaten da. Markagailua aurka dagoenean, ordea, presa nagusi, eta gehienetan ez oso lagungarri. Argazkikoari behintzat ez zion lagundu.



**DEBA  
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

## IOSEBA KONTENEDOREAK



Urriburu, 23. 4.a eskuma.  
Tfnoa: 79 61 18

**ARRASATE**

**AGUSTIN**

Auto-spinua  
Karburaioa  
Autoarentzako  
osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16  
ARRASATE 79 73 58



## A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	6	5	1	0	35	10	11
Fosforos	6	4	1	1	28	16	9
Los Heredia	6	3	2	1	21	14	8
Fasprint	6	3	1	2	26	22	7
Notxingan Flo.	6	2	0	4	14	25	4
La Banda	6	2	0	4	16	28	4
Kajoi	5	1	1	4	15	22	3
Hirei	6	1	0	5	16	34	2
<b>Totala</b>	<b>48</b>	<b>21</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>171</b>	<b>171</b>	<b>48</b>

## B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida	6	5	1	0	35	12	11
Akaitegi Express	6	4	2	0	39	17	10
Danok Lagun	6	4	1	1	22	14	9
Arrasate Kirolak	6	3	2	1	33	21	8
Gnu Seg. Bilbao	6	2	2	2	18	18	6
Adobe	6	2	0	4	20	36	4
AEK	6	0	0	6	10	41	0
Los Motz	6	0	0	6	16	34	0
<b>Totala</b>	<b>48</b>	<b>20</b>	<b>8</b>	<b>20</b>	<b>193</b>	<b>193</b>	<b>48</b>

## C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Lorategi Potroak	6	5	0	1	29	14	10
G. P. Noski	6	4	1	1	21	14	9
V. C. Daglas	6	3	2	1	19	17	8
Pepelus	6	3	1	2	24	19	7
Artzankos Udal.	6	2	2	2	32	21	6
Zulu's	6	1	1	4	26	38	3
Diego Antonio	6	1	1	4	28	38	3
Jo ta akabau	6	1	0	5	15	33	2
<b>Totala</b>	<b>48</b>	<b>20</b>	<b>8</b>	<b>20</b>	<b>194</b>	<b>194</b>	<b>48</b>

Pil-pilean dago sailkapena, ez dago esan beharrik. Aspaldi hitz egin genuen lerro hauetan bi abiaturako trenari buruz eta bigarren fasea hasteko dagoela, sailkapenak orduan esandakoa baieztatu besterik ez dute egiten. *Argi Ibili* sailkatuta eta hurrengo faserako pasea lortzeko aukerakin talde ugari: *Fosforos*, *Adelaida*, *Lorategi Potroak*, *Fosforos*, *Akaitegi Express*, *G. P. Noski*, *Los Heredia*, *Danok Lagun*, *V. C. Daglas*, *Fasprint*, *Arrasate Kirolak* eta *Pepelus*. Hurrengo fasea jokatu duten zortzi sailkatuak zeintzuk izango diren? idearik ere ez, baina taldeek aipatutako ordenan dauzkatela aukerak esango genuke.



**Gnu Seg. Bilbao:** Joxemari, Txomin, Iñaki, Ramon, Modesto, Jabier, Raul, Juanjo, Antxon eta Emilio.




**Adelaida Haizea:** Zurdito, Luma, Alfonso, Joseba, Roberto, Santi, Josu, Juanjo, Aitor, Sebas, Rafa, Hetxi, Txui, Juanina eta Jabi.

# JMA



Baloi guztiak dira inportanteak eta erreboteetara joateak garrantzi handia izaten du horregatik, hain toki estu eta txikian edozein jokaldi segituan bihur daiteke arrisksua eta. Dena dela, baloi bakoitzaren bila, bi edo gehiago izan beharrean, jokalaria bat joatea nahiko izaten da.



## LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 12 75

## EMAITZAK

### A taldea

La Banda 2 ..... Notxingan Flores 6  
Argi Ibili 5 ..... Bar Kajoi 3  
Hirei 3 ..... Fasprint 7  
Los Heredia 2 ..... Fosforo's 2

### C taldea

Diego Antonio 7 ..... Pepelu's 9  
Artzankos 14 ..... Zulu's 5  
V. C. Daglas 4 ..... Jo ta akabau 3  
Lorategi Potroak 2 ..... G. P. Noski 1

### B taldea

AEK 3 ..... Adobe 6  
Danok Lagun 4 ..... Adelaida 4  
Gnu. Seg. Bilbao 5 ..... Los Motz 3  
Akaitegi Express 5 ..... Arrasate Kirolak 5



## ESKIÑA taberna

Goizeko 7etan  
zabaltzen dugu

Olarte, 25  
ARRASATE  
Tfno: 79 20 20

# Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

## STIHL

# Leniz Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78



## Txutak

### Esnesaltzailearen kontuak



Partidu bakar bat gelditzen da lehen faseari amaiera emateko eta oraindik gauza asko daude erabakitzeke. Orain arte txapelketan jokoan jarri diren bi puntu garrantzitsuenak jokatuko dira datorren ihardunaldian, aurrera egingo duten zortzi taldeak zeintzuk diren erabakiko duten puntuak.

Sailkapena dela eta ez dela, lasai-lasai egon daitekeen talde bakarra A multzoko *Argi Ibili* taldea da, edozein kontu eginda ere sailkatuta agertzen da eta. Aipatutako multzoan *Fosforos*-ek, datorren astean *La Banda de Pepe*-ri irabazita sailkapena ziurtatuko luke; beraz, hurrengo faserako pasea euren esku daukate.

B multzoan gauzak ez daude bat ere argi, *Adelaida* eta *Akaitegi Express* ia sailkatuta daude, baina elkarren aurka jokatzen dutenez, baliteke bietatik batek galtzea eta *Danok Lagun* hor aurrean sartzea; berdinduta ere, *Akaitegi Expressekin* berdindu dezake *Danok Lagun*-ek. Ikusi egin behar bada, zertan amaitzen den.

C multzoan *Lorategi-Potroak* taldeak lehen postua eskuratzea lortu zuen eta *G. P. Noski* dauka orain atzetik. *Lorategi* partidua zaila dauka datorren astean; ez, berriz, *G. P. Noski*.

Hori zuzenki sailkatu daitezkeenaren artean gerta daitekeena, baina talde gehiago daude hor borrokan: *Los Heredia*, *V. C. Daglas* eta *Danok Lagun* bereziki.

Batzuk zein besteak, seguru datorren astean praka motzak eta kiroletako oinetakoez gain, harkatza eta paperarekin agertzen direla. Kontuak egiteko, noski.

BEÑARDO KORTABARRIA

### DATORREN ASTEAN

#### A taldea


La Banda .....	Fosforo's (Lar. 13.00)
Argi Ibili .....	Fasprint (lg. 10.00)
Hirel .....	Kajoi (Lar. 10.00)
Los Heredia .....	Notxingan Flo. (Lar. 12.00)

#### B taldea

AEK .....	Los Motz (Lar. 15.00)
Danok Lagun .....	Arrasate Kirolak (lg. 12.00)
Gnu. Seg. Bilbao .....	Adobe (lg. 8.50)
Akaitegi Express .....	Adelaida (Lar. 11.00)

#### C taldea

Diego Antonio .....	G. P. Noski (Lar. 8.50)
Artzankos .....	Jo ta akabau (Lar. 16.00)
V. C. Daglas .....	Zulu's (lg. 11.00)
Lorategi Potroak .....	Pepelu's (Lar. 17.00)



## EGIDO

### Automobilarentzako ordezeko piezak

Legarre Pabilioia.

ARRASATE Tfnoa: 79 62 11




## Foruen

### Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16  
ARRASATE

## GOZOKIAK • KAFEA




## AKELARRE

### ESKUZ EGINDAKO GOZOKIAK

Tartak, pastel txikiak, pastel bereziak,  
gurinezko pastak, opiltxoak, ezkontza-tartak.

ENKARGUAK: 77 00 71 tfnoan.

Zarugalde, 54 ARRASATE




### Elektroinjekzio Zerbitzua

## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldipe kalea, 5  
Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

Alfredo Rueda

## Espezie desagerpenaren kontra lanean



Horregatik, eskaera bat luza-  
tzeko aprobetxatu nahi dut  
aukera hau populazioari eta  
administrazioari. Egunez  
egun saiatu behar dugu ali-  
mentazio ekologikoa jarrai-  
tzen, plastikozko ontziak eta  
ontziratutako janariak ebita-  
tuz. Isurketak eta kutsadura  
ebitatzeko bideak jartzea,  
egur-esplotakuntzak kontro-  
latzea, obra publikoak pai-  
saian integratzeko proiektuak  
aztertze, garraio publikoak  
bultzatzea eta beste hainbat  
eskakizun baerezi eskatuko  
nioke Administrazioari ere.  
Horrela bakarrik lor dezake-  
gu dibertsitate ekologikoa  
mantentzea, espezie bakoit-  
zaren medio egoki bezala.

— **Gauzak dauden bezala,  
nolako etorkizuna aurreikus  
daiteke?**

— Gauzek gaur egun be-  
zala jarraitzen badute, nahiko  
ilun ikusten dut etorkizuna.  
Baina bestalde, gizartean gai  
hauek gero eta eragin gehia-  
go dutela uste dut, hobeto  
ulertzen direla eta pisu ge-  
hiago dutela. Erakunde eta  
lege aldetik ere ikusten da  
aurrerapausu bat, "Habitata  
zuzentzeko legea" eman dute  
eta. Orain arte European  
bakarrik zegoen onartuta eta  
orain behintzat Estatu Espai-  
nolak onartu egin du. Hala  
ere, jarri diote beste muga  
bat: 1996. urterarte ez da in-  
darrean sartuko. Teoria mail-  
an gauza asko ikusten da  
baina errealitatea oso des-  
berdina da, gauzak ez dira  
praktikara eramaten eta hor  
dago bakoitzaren egin behar-  
ra. Orohar gauza asko dau-  
de orain egiteko eta bultza-  
tzeko; gero eta jende gehia-  
gok presio egiten badugu,  
errazagoa izango da fun-  
tsezko helburua lortzea: gi-  
zakia beste espezie bat kont-  
sideratuz, mimo eta detaile  
berezia jartzea bakoitzaren  
kontserbazioan.

**A**lfredo Rueda  
biologoa, ANAT-  
LANE, Nafarroako  
Lurraren adiskide  
elkarteko kidea da. Es-  
pezieen desagerpenaren  
arloan lan asko egin du eta  
Arrasaten ere izan dugu, EKI  
ekologista taldeak gonbida-  
tuta, espezie desberdinen  
egoera ezagutzeko hitzaldia  
emanez.

— **Zer dela eta interes be-  
rezi hori gai honetan?**

— Gaztetatik izan dut es-  
peziei buruzko gaitan inte-  
res handia eta hori dela eta,  
aspaldi sartu nintzen talde  
naturista eta ekologistetan.  
Gainera, biologoa izateak  
ezagupen pribilegiatua eman-  
ten dit, medioaren ezagupen  
berezia errazten dit eta. Bai-  
na niretzat ez da beharrezkoa  
ez biologo ez talde konkretu  
bateko militantea izatea; de-  
nok izan beharko genuke, gai  
hauek tratatzeko orduan,  
halako kezka txiki bat gure  
barnean.

— **Nola ikusten duzu gaur  
egungo espezieen egoera?**

— Europarekin konpara-  
tzen badugu, Estatuko eta  
Euskadiko egoera nahiko  
pribilegiatua da gaur egun,  
espezieak kontserbatzeko  
baldintza hobeak daude eta.  
Baina honek ez du esan nahi  
egoera ona denik, oraindik  
gauza asko dago egiteko. Oso  
nabarmena da industrializa-  
zioaren eragina, batez ere  
Bizkaia eta Gipuzkoan, bi-  
tarte flubialak desagertu eta  
esplotazio forestalak nagusi-  
tu direlako. Bestalde, Araba  
eta Nafarroako gune zabal-  
batzutan ezpezieen kontser-  
bazioa askoz hobe da, gune  
despopulatuak edo zerbit-  
zuko industria garatu da eta.

— **Zeintzuk kontsidera  
daitezke arriskuan dauden  
espezie?**

— Beti espezie handi eta  
ikusgarriak gehiago hartu  
dira kontutan besteak baino.  
Horregatik, eta legean da-  
goen hutsunearen ondorioz,  
espezie batzuk desagertzeko  
zorian daude. Batzuk aipa-  
tzearen: tximeleta espezie  
konkretu batzuk, bonelli  
arranoa, hartza, otsoa... Bes-  
talde, giza espeziea ere kon-  
tutan hartu behar da: Ama-  
zonaseko tribuak, gizaki me-  
diterraneanarra... desagertzeko  
zorian daude. Anglosajoi

kulturaren eraginez gertatu  
da hori batez ere.

— **Nola konpondu daiteke  
arazoa?**

— Lehenik oso argi gel-  
ditu behar du konponbidea  
ez dela kanpaina askok azal-  
tzen duten bezain erraza. Ezin  
dugu espezietaz hitz egin  
euren medioa kontutan hartu  
gabe. Adibidez, ezin dugu  
nutria edo beste espezie bat  
erreka zati batetan kontser-  
batu, erreka hori gorago edo  
beherago kutsatuta badago.



**Industrializazioak izan  
duen eraginak oso lotura estua du  
espezien desagerpenarekin"**

# Marian Gil: Arraina uretan bezala

**Munduan bada hainbat jende kirola egiten eta kirolerako bizi dena. Jende horrek ez du arazorik izaten, nahi duen kirolean lehiatu nahi izanez gero, lehiakideak aurkitu eta lehiatzeko. Aipatutakoa ez da aste honetako erreportaiko protagonista-ren kasua, lehiatzeko gogo bizia izanda ere ez du eta oraindik, berarentzat aproposik aurkitu.**

**M**arian Gil-ek, beste jende askok bezala, berandu heldu zion igeriketari. Osasun arazoek bultzatuta eta sendagilearen aginduz, orain urte t'erdia hasi zen igerian ikasten. Ordutik hona, hobekuntza nabaria igarri du Marianek bizkarrezurrean eta gainera garai batean terapia hutsa zena, orain zaletasun ikaragarri bihurtu zaio.

Arratsalde batean bai eta bestean ere bai ikus daiteke Marianen figura txikia Musakolako igerilekuan. Izan ere, osasuna hobetzeaz gain, Marianek giro jatorra aurkitu du pizinarra joaten direnen artean, "berba egin, gero zerbait hartu...". Gainera hasi zenean urari izugarritzko beldurra zion. "Hasieran, hankak sartzen ere beldurtu egiten nintzen. Asko kosta zitzaidan ikastea, baina Jose Luisek izugarritzko pazientzia izan zuen nirekin eta ondo baino hobeto irakatsi zidan igerian. Egia esan, Jose Lui-

sek bere denboraren zati handi bat eskaini zidan eta asko zor diodala esango nuke".

## Lehiatu nahian


**M**arianek igerian ikasi zuen, baina ez da

horrekin konformatzen, lehiaketetan sartu nahi du eta. Han eta hemen galdezka ibili da, ea berarentzako moduko lehiaketa edo frogarik aurkitzen duen, baina orain arte egin ahalegin guztiak alper-alperrik izan dira. "Behar bada hiribururen baten bizi

banintz zerbait aurkituko nuke, baina hemen inguruan ez dago ezer. Gutxitu fisikoan arteko lehiaketetan parte hartu nahi dut, gogo bizia daukat eta ilusio handia. Gaur egun gustoren hartuko nukeena lehiaketaren batean koparen bat irabaztea izango litzateke, poz pozik hartuko nuke. Nori dedikatuko nioken? Jose Luis-i, duda barik, eskaini didan laguntzagatik".

Akats fisiko bat dauka Marianek, normala baino askoz ere txikiagoa da, eta horregatik dauka gutxitu fisikoekin lehiatu beharra. Berak ez daki pizinarren luzeerako 25 metroak zenbat denboran egiten dituen, inoiz ez da horretaz arduratu eta; ez daki egunero zenbat metro egiten dituen ere, kontatzen hasi eta gero ahaztu egiten zaio. Egunero 400en bat metro egingo dituela aitortzen du bere amak, pizinarra egunero laguntzen dionak.

Akats fisikoa hain nabaria izanda ere, Marianek ez du beldurrik bizitzaren aurrean. "Nire itxuragatik min egin didanik aurkitu izan dut inoiz; baina jende jatorra



Mariani gehien gustatzen zaionaa bizkar-igeriketa da



Egunero entrenatzen du Marianek

*errazago aurkitzen da, beste mentalitatekoa. Bizitza den bezelakoa da eta ez dago aldatzerik. Gauzak datozen bezala hartu behar dira, ez dago beste erremediorik”.*

#### Pizinatik kanpo

**G**auzak datozen moduan hartu behar horretan, Marianen egunerokoa ez da pizina mugatzen, beste zeregin batzuk ere baditu. La Merced ikastetxean ikasi zituen Marian Gilek Administrazio Laguntzaile ikasketak. “Orain Informatika Idazkaritza ikasketak egiten ari naiz Bastida akademian eta makinaz primeran idazten du. AMATen lan egin nuen eta baita Oñatiko lantegi baten ere”. Argi dago bizitzari ahalik eta ondoen aurre egiteko prestatzen ari dela Marian eta balore handiz ari

ere. “Asko mugitu den pertsona izan naiz beti. Kuadrilarekin asko irteten nuen lehen eta inguruetako herrietako jai guztietan ibilitakoa

naiz. Orain, lehen baino gutxiago. Normala da, lagun gehienak ezkondu edo beste la mutilen batekin dabilta eta orain kuadrilan oso gu-

txitan irtetzen dugu.

Kuadrilarekin ez irteteak etxean denbora gehiago pasatzera behartu du Marian. Hala ere, telebista aurrean denbora galtzea baino zaletasun hobea aurkitzen jakin izan du neska honek: zigiluen bildumatxoa egitea. “2.000 zigilu inguru dauzkat, mundu osokoak. Bildumak egiten dituzten beste pertsona batzuekin ere badut harremana eta kanpotik bidaltzen dizkirate sarritan. Ditudan zigilu gehienak “matasellodunak” dira, baina hala ere niretzat balio handikoak dira. Bildumako baliotsuena seguruaren Alfonso XIII.aren garaiko bat izango da”.

Ikasketak, zigilu bilduma eta pizinen inguruan egiten du bizitza Marianek, egunen batean bere eskuekin kopa bat altxatzeaz amets egiten duen bitartean.

### Igeriketarako aukera gutxi

Orain arte lehiatzeko aukerarik izan ez badu ere, hemendik aurrera Marianek ez du gehiago izango. Izan ere, gutxitu fisikoentzako igeriketa frogak, oso noiz behinka egiten dira Gipuzkoan eta gauza anekdotikoa izaten dira.

Garai batean, Gipuzkoan “Creceer” elkarteak, nanotasun arazoak dituztenen elkarteak, bazuen delegazioa. Baina ordezkarietan aurrera eraman behar ziren lanak egiteko behar hainbat jende aurkitu ez zenez, itxi egin zen. Beraz, alde horretatik Marianen lehiatzeko gogoari nekez etorriko zaio irtenbiderik.

Gipuzkoatik kanpo, Bizkaian, zehazkiago esateko Bilbon, Marianek aurkitu ahal izango luke informazioa eta irtenbidea, Bizkaian Gutxitu Fisikoen Kirol Federakuntza antolatuta dago eta. Marianek egunen baten lehiaketetan parte hartu nahi badu, Musakolako kiroldegia utzi egin beharko du.


### Menu eta afariak Boda eta banketeak

Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoak: 79 91 84  
77 07 94

**Basabe  
jatetxea**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M  
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07




Jose Ramon Arkauz



Jose Luis Idigoras

## Mondrako entrenatzaile berriak gertu

Mondra zulo handi batean sartuta dago eta zulo horretatik ateratzeko, Mondraren zuzendaritzak etxeko bi gizon jarri ditu lanean, Jose Luis Idigoras eta Jose Ramon Arkauz. Biek adierazten zuten, lan zaila izango dute taldea dagoen tokitik ateratzen, baja ugari daudela ikusita eta jokatzeko moduan dauden jokalaria ez dabiltzala osasun egoera onean. Forma fisikoari begiratu gaizki badabilta, psikologikoki ez dabilta hobeto Mondra taldeko jokalaria. Izan ere, jaisteko postuetatik oso hurbil dago taldea eta edozein extrapausok behegaro eraman dezake. Denboraldiari bukaera emateko zortzi partidua besterik falta ez direnean, egoera arriskutsuan aurkitzen da Mondra.



## Bea Jimenez podiumerako bidean

Beatriz Jimenezek hasiera ona eman dio aurtengo Euskadiko Eskalada Txapelketari, eta aurreko bi urtetan bezala, aukera handiak ditu berriz ere txapeldun izateko. Euskadiko Txapelketarako baliozko den lehen proba joan den astean burutu zen Sestaon eta Beatrizek irabaztea lortu zuen. Dena dela, oraindik Beasain eta Bergaran lehiatu beharko du.




**Ibon Abasolo** Eskubaloitako taldeko atezaina hil zen pasa den astelehenean. Hilaren 3an lanean ari zela erori zen. Ibonen hileta elizkizunak asteartean egin ziren, Frantziskotarren elizan. Goian bego!

## Hurrengo partidua

Orain bi aste kolokan jarri genuen Izagireentrenatzaile eta handik aste betera partidua irabazi eta agur esan zion bere karguari. Arrazoiak? taldeko zuzendaritzak ohar ofizial baten adierazi zuenez, honako hauek: lehiaketako bigarren fasean taldeak izan dituen emaitza txarrak eta zaletuen sektore jakin baten eta komunikabideen aldetik jasotako presioa.

Izagirrek taldea utzita, joan den asteburuan liderraren aurka jokatu zuten arrasatearrek Arkauz eta Idigoras zuzendaritzapean, Irungo Real Unionen aurka, baita 3 eta 1 galdu ere. Kronikalariek diotenez Mondrak ez zuen gaizki jokatu eta markagailuak banako emaitza erakusten zuenean partidua irabazteko aukerak izan zituzten.

Asteburu honetan ere, arrasatearrek ez dute partiduko bi puntuak eskuratzeko bat ere erraztasunik izango. Joan den astean bisita liderrari egin zitzaion moduan, oraingoan bigarren sailkatuari egingo zaio, Elgoibar taldeari hain zuzen ere. Ikusi egin behar bada, astebeteko epean Idigoras eta Arkauzen lanaren eraginik nabaritzen den edo ez, nahiz eta gauza handirik egiteko Lerungo zelaia bat ere egokia ez izan.



# Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

## Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73



# PODIUMA

**ENRIKE  
ALONSO**

*Elkartasuna beste  
txirrindulariekiko*



**E**nrike Alonso behin baino gehiagotan atera izan dugu Podiuma sailean. Izan ere, arrasatearrak txirrindularitza munduan gauza handiak egin ditu eta aukera ugari eman ditu komunikabideetan atera ahal izateko. Oraingoan ez dakargu berak irabazi duen lasterketa edo egin duen lan onagatik, bai ordea, berari eta bere taldekideei egin dioten faenagatik.

Iaz Lotus taldean ibili zen Enrike Alonso. Denboraldia bukatu eta aurrerabiderik eman ez ziotenez, talde berria aurkitu behar izan zuen arrasatearrak. Handik eta hemendik zituena eskaintzak ikertu eta gero, aurtengo denboraldi hasieran aukeraketa egin eta CHCS taldean sartu zen. Sartu bazen, zoritxarrerako sartu zen, talde honen historia zentzugabekeriaz beteta egon da eta. "Ez dut ulertzen zer gertatu den, sinesgaitza da: denboraldi hasieran jende bat hurbiltzen zaizu dirua izango dela eta denboraldia betetzeko arazorik ez dela izango esanez. Hilabete pasa, bi, hiru... eta diruaren arrastorik ez. Azkenean garbi ikusi da CHCS taldeak ez zuela inolako aukerarik dirua lortzeko; hortaz, zer interes izan dute bazutela esateko? horrelako jendearen jokae-

ra ezin dut ulertu". Ez dirudi ez, jo-kaera normala, dirua izango dela esatea jakinean ez dela dirurik izango. Txirrindulariak hor ibili dira tarte horretan, aipatutako taldearen maillot-ak jantzi, entrenatu, kontzentrazioetara joan... aurten, gehienek behintzat, ez zutela profesionalen tropelean ibiltzeko aukerarik izango jakin arte.

Egoera horren aurrean zer egin? "Orain talde moduan zain gaude, datorren astera arte ez dugu jakingo beste norbaitek taldea patrozinatu ahal izango duen edo ez. Nik pertsonalki, badut Lotus-en eskaintza, baina besteek ez. Talde moduan irtenbiderik ez badugu, orduan sinatuko dut eskaintza hori, lehenago ez" Osasunari dago-kionez forma onean dagoela aitortzen du Enrikek, ezer gertatu ez balitz moduan eta denboraldia normal joango balitz bezala. "Roilo guzti honen zulo-tik irieteko desiatzen".

## ◆ Cnes. Brues garaile

Futbitoko Cnes. Bruesek berriz ere irabaztea lortu zuen Arabako futbito txapelketaren barruan jokaturako partiduan, 3 eta 4 Ra655 taldeari. Lehen zatiaren bukaeran markagailuak 0 eta 4ko emaitza erakusten zuen arrasatearren alde, baina azken minutuetan esnatu eta ia partidua berdintzea lortu zuten gasteiztarrek. Bihar larunbata, atzeratutako partidua izango da Iturripen, arratsaldeko 6etan.

## ◆ Tabirako nagusi saskibaloian

Centraljet-eko talde biek, emakumezkoenak zein gizonezkoenak, Tabirakoren aurka jokatu zuten eta biak atera ziren galtzaile. Mutilak, azken partiduetan baino hobeto ibili baziren ere, 98 eta 75ko emaitzaz galtzaile geratu ziren. Neskek ere, ez zuten zorte hoberik izan eta arauzko denbora bukatu eta gero Tabirakoren aurka galdu egin zuten 48 eta 53. Oraingoan, arrasatearrek ez zuten bat ere ondo jokatu.

## ◆ Mondrako neskak irabazle

Kopa txapelketaren barruan Arrasateko neskak nagusitzen ari dira. Joan den astean Azkoitira joan eta 0-1 irabazi zuten Anaitasunaren aurka. Horrela jarraitzen badute, ez dute kopa irabazteko eragozpenik izango.


## ◆ Txirrindularien emaitzak

Pasa den asteburuan Dorletako txirrindulariek ez zuten apartekorik egiterik lortu. Aipagarriena Lazkaoko lasterketa izan daiteke, jubencil mailakoa. 60 kilometro eta 130 txirrindulari irteeran; helmugan, berriz, 75. Dorletako zortzi txirrindularik bukatu zuten lasterketa, lehenengoa eta lasterketako hamabigarrena Jose Miguel Elizburu izan zen. Denbora berean, Zigor Urain eta Iker Zugasti.



**JOSE LUIS GARCIA**  
Osteopatian diplomaduna  
Masai terapeutikoa

Udalpe, 4-4. ezk. (Erguin) ARRASATE Tfnoa: 79 55 51



**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

# Beharrezko al dira zuzendaritzak?

**B**ai, ez?... Nahiz eta batzuentzat galderasoberan egon, enpresa edo nogozio mundutik datozelako, hezkuntza eremuan murgilduta aurkitzen garentzako ez da batere txantxetakoa.

Dudarik ez, ezezko borobilik ez du inork aitortuko. Ala bai? Ez dut uste.

Gertatzen dena da, zuzendari batek bete behar dituen funtzioen pertzepzioa ez dela berdina kasu guztietan.

Batzurentzat, mezulari rola bete beharko luke. Beste batzurentzat, berriz, profesionalitateke, bere baitan autoritatearen jabe izanik.

Ikas eremuan nahiko finkatuta dago lehengo per-

tzepzioa: zuzendariak klausuroak erabakitzen duenaren mezularia bihurtu behar du, hauen ordezkari gisa ihardun behar du eta haren esanetara jokatu.

Aipatutako pertzepzioa nahiz eta berez horrela adierazita egon ez, errealitatean hainbat zuzendari horrela jokatzerara nahiko kondizionatuta aurkitzen da.

Horrek, berarekin dakar, kontsekuenteki, zuzendari izateko "bokazio" eza, konpensazio, besterik, eskaxa denean.

Beste pertzepzioa, profesionaltasunarena hain zuzen, neurri txiki baten, terrenoa irabazten ari dela esan liteke.

• Ikastetxeak urduri daude, demografiaren beherakada

dela eta, kultura berri bat, konpetentziarena, ari da sortzen.

• Mugimendu pendular bat bezala, zuzendaritzaren beharra gero eta mabarmenago ari da azaltzen, jota lurretik egon ondoren hainbat kasutan.

• Baliabideak ari dira jartzten. Orain dela gutxi unibertsitateak antolatutako postgrado kurtso baten esku hartu dut non 30 zuzendari ari bait ziren. Irakaskuntza Kooperatiben Federazioak ere zenbait ikastaro antolatu ditu, non gure zuzendariek esku hartu bait dute.

Nahiz eta batzuei herejia iruditu, ikastetxea enpresa da, produktu bat du, langile batzuk ditu. Enpresa guztiek bezala, ahalik eta produkturik onena sortzen ahalegindu be-

har du. Langileak gidatzeko, proiektu baten inguruan motibatze, komunikatzeko eta abar, "Giza baliabideen gestioa" delakoaren jabe izatea ez da inprobisatzen.

Guuzti hauek uztartzeko gaitza izan behar duen zuzendari formakuntzaren bidez lortzen da, zuzendari izateko karakteristikak batzuz hornituta egon eta guuzti honen ondorioz, hain zaila den guuzti honek konpentsazioa eskatzen du: ekonomikoa nahiz pertsonala.

Esku artean daramagun ekintzak konprometitua esgiztzen du. Zuzendari batek, berak bakarrik ez du dena lortuko, baina zuzendari egoki onik gabe aurkitzen den ikastetxeak ez du produktu onik aterako.

FELIX ORMAETXEA  
HEZIBIDE

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

**Plus Ultra**

**taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

**Monte**


**taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56



**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



**Alkoholarekin arazorik daukazu?**

**Agian, Alkoholiko Anonimoak" lagundu ahal dizu!!**

**Alkoholiko Anonimoak**  
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**LURRINDEGIA**


**ERTZ**

**OPARIETAKO ARTIKULOAK**  
Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70



# San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta  
pertsona bakoitza hezitzen**



## Hurbila

Pertsona BAKOITZA da gure helburua. Horregatik, arreta berezitua eskaintzen diogu ikasleari, familiarekin harreman estuan eta elkarrekiko lana bultzatuz.

## Euskalduna

Gure Herriari zerbitzatzeko jaio zelako, barruan euskalduntzea etengabe bultzatuz, eta kanpora begira, euskal mugimenduarekin batera lanean: Ikastolen Elkarte, AED, ARKO...

## Kalitatezkoa

50 urte hezkuntza lanean eta azken 10ak Erreformatan murgilduta. Gure profesionalak prestatuz eta gure eskaintza hobetuz, etengabe.

## Osoa

Benetako hezkuntza "erakuste" hutsa ez delako, pertsona OSOARI eskaintzen dizkiogu gure zerbitzuak: Orientazio eta Psikopedagogia Sailak, Hezkuntza Erlijiosoeko Saila, Kirol eta Osasun Sailak...



# Izenemateko epea zabalik

**Arrasate Pasealekua 10**  
**Telefona: 790411**

**JOSTEKO**



**OIHALAK**

Errekabarren, 20  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90




**JOSU**

**TXOKOLATEGIA**

**KAFETEGIA**

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**ARRASATE**

**HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**ZENTRO**

**PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

**Lore** *lurrindegia*

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

OM 1224  
FM 99'8

**ENTZUN!**

**HERRIZ HERRI**

Larunbatero  
11.30 etan

**HERRI Irratia**



**Radio POPULAR**  
GIPUZKOA

### ◆ Gorosarriren kontzertua

Bihar, arratsaldeko 8etan Eskoriatzako Gorosarri abesbatzaren kontzertua izango da San Juan Bataiatzailearen parrokan. Goio Eskibelen zuzendaritzapean, bi atal desberdin izango ditu kontzertuak; lehen saioan Guerreroren "Todo cuanto pudo dar", Mozart-ren "Ave Verum", edo Lolli-ren "Crucifixus" obrak aurkeztuko dira besteak beste. Bigarren saioan, Luis Elizalderen "Alegeratzen", I. Moko-roaren "Illunabarra", Aita Donostiaren "Itsasoa" edo J. M. Bastidaren "Saratarra". 1983. urtean sortu zen Gorosarri abesbatza eta 1991. urtean zehar, 13 kontzertu eman ditu Arrasate Musikaleko orkestartekin batera.



## Ongi Etorri - Cinio Croeso Cantorion y Rhyd!!

Goikobalu abesbatza iaz Gales-en izan zen moduan, aurtan Cantorion y Rhyd talde galestarra etorriko da Arrasatera, hilaren 16tik 20ra bitartean. Guztira 80 galestar, 70 Cantorion y Rhyd abesbatzakoak eta gainontzeko 10ak folk talde bateko partaideak.

Apirilaren 16an iluntzeko 9ak aldera iritsiko dira Arrasatera Cantorion y Rhyd taldekoak, eta bertan afaldu lotara Arantzazura joango dira.

Hurrengo egun osoa Errioxan pasatuko dute abesbatzek, Labastida inguruan; arratsaldeko 6etako Arantzazura bueltatu eta bertako elizan kantatuko

dute. Galestarrei Arrasaten harrera ofiziala larunbatean egingo zaie, hilaren 18an. Harrera egin aurretik, goizean Lankide Aurrezkia eta Otalora bisitatuko dituzte kooperatiben iharduera eza-gutuzeko eta eguerdiko 12.30etan ongietorri ofiziala egingo die Alkateak. Ondoren Alkartu elkartean bilduko dira guztiak bazkaltzeko eta arratsaldeko 4.30etan euskararen egoerari buruzko hitzaldi bat entzuteko aukera

**"Larunbatean, hilak 18, harrera ofiziala eta kontzertua pleno aretoan"**

izango dute, gaelikoarekin antzerako arazoa dute eta. Cantorion y Rhyd-en kontzertua entzuteko aukera arratsaldeko 7.30etatik aurrera izango da Udaletzeko pleno aretoan. Bukatzeko, Kataideko herri-afarirako txartelak eskuratu nahi duenak Goikobaluko partaideei eskatzea besterik ez dauka, 2.500 PTAtan.

Igandean, berriro ere turismoa egingo dute galestarrek, Loiola, Getaria, Zarautz, Donostia eta sagardotegiaren batean afaria. Astelehenean, Santanderren bueltako itsasontzia hartu aurretik, Gernikan geldituko dira Junta Etxea eta pilota partiduren bat ikusi asmoz.

**ITSASKI**  
arrandegia

**Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

**ENARA**   
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21  
Tfnoa: 79 62 32  
20500 Arrasate



**BEVERLY**  
**TABERNA**

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99  
ARRASATE

Aste gazte

"... Herri honetako gazteria honelakoa edo horrelakoa dela esaten denean, hemen frogatu da gazteak ez direla pasotak eta benetan aparteko gazteria dugula. Behar den gauza bakarra laguntzea da".

Eli Galdosek Arrasaten



Kirol-ikastaroak

- Igeriketa monitore ikastaroa. Oñatin. Maiatzak 8-Ekainak 14, ostiral arratsaldez (7-9) eta larunbat goizez. Baldintzak: 18 urtetik gora eta eskola-graduatuak. Prezioa: 34.000 PTA. Izena emateko azken eguna: Apirilak 30.

- Kirol-Urpekari ikastaroa. Bergaran. Maiatzak 11-31, astegunetan (7etatik 10etara) eta asteburuetan. Baldintzak: 16 urtetik gora,

igeri egiten jakitea eta ekipoa. Prezioa: 25.000 PTA.

- Haitz Eskalada Ikastaroa. Maiatzak 1-2-3. Mailak: hastapena eta hobekuntza. Prezioa: 6.000 PTA. Baldintza: mendiko Federatu Txartela edukitzea.

- Banmintoneko monitore ikastaroa. Musakolako kiroldegian. Maiatzaren 30 eta 31an, guztira, 10 ordu. 18 urtetik gorakoei zuzendua. Prezioa: 5.000 PTA. Izena emateko azken eguna: Maiatzak 8

Lana

- EUDEL-ek Bilboko egoitzan lan egiteko goi-

mailako teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: Zuzenbidean lizentziatua izatea. Izena emateko epea: Apirilak 20.

Bekak

- Arte Plastikoen arloan proiektu bat burutzeko beka. Arloak: eskultura, pintura eta grabatua. Dirulaguntza: 450.000 PTA. Epea: Apirilak 30.

- Suizako Saint Gallen-ko Unibertsitatean ikasteko beka. Eskatzaileak: alemanera menperatzen duten lizentziatuak. Gaiak: zientzia politikoak, ekonomikoak eta soziologia. Dirulaguntza:

hileko 900 franko suitzar. Epea: Apirilak 30.

Lehiaketak

- Beasaingo Loinatz Jaientarako Kartel-Lehiaketa. Teknika libre. 45x65. Sari bakarra: 40.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: Apirilak 14.

- "Objetos Imposibles" Lehiaketa. Gai libre. Sariak: 400.000, 75.000 eta 25.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: Apirilak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65



**IREKI  
BERRIA!!!**

**SORALUZE OSTATUA**

- Jangela handiak
- Logela ederrak zerbitzu guztiekin
- Eguneko menua eta karta
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak...

Arantzazurako bidea z/g Tfnoa: 71 60 70 Faxa: 71 61 79 OÑATI

# ETXEBIZITZAK

- **Pertsona bat behar da hiru irakasleekin pisua konpartitzeko.** Dei egin ordubateetik Zetara. Tfnoa: 79 71 16.
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza** Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- **Etxebizitza behar dut alokairuan.** Tfnoa: 79 51 21.
- **San Andresen etxebizitza salgai.** Sukaldea, bainugela, 3 logela eta sotoa. Tfnoa: 79 91 73.
- **Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten.** Interesatuak dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- **Bi neska etxea behar dute alokairuan** Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.
- **Etxebizitza salgai.** Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.

behar da (Euskaraz edo erdaraz).  
Tfnoa: 79 48 09. Itziar.

- **Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu.** Gaez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- **Emakume euskalduna behar da** bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- **Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu** nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- **Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke** (matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- **FP2 mailako kimika irakatsiko didan** norbait behar dut. Dei egin 79 50 53 tfnora.
- **Aretxabaletan andra euskalduna gertu** umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 79 07 75.
- **Umeak eta etxeko lanak egiteko** euskaraz dakien emakumea behar da. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 25 12 tfnora.
- **Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke.** Euskara eta ingelesarekin. Tfnoa: 79 04 07

- **CDU ur-berogailua salgai (Duplex)** Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.
- **Peugeot markako paseoko bizikleta eta Orbea Siroko karreterakoa salgai.** Gutxi ibilikoak eta oso egoera onean. Karreterakoak barruko frenoak kilometroak kontetakoak eta platuak karreratakoak ditu. Dei egin 79 71 30 tfnora. Aitor.
- **Renault 4 zuri eder bat salgai.** Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- **R-7 egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 31 20.
- **Karabana ekipatua salgai.** Sei lagunentzako tokia. Errioxako Bañareseko kanpinean jarria. Tfnoa: 79 20 19.

# DENETARIK

- **Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke,** txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- **Otsailaren 4ean** Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- **Urrezko kate bat topatu dugu** kalean, zurea bada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- **Egunero Bilbora joateko tokia behar dut kotxe baten.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Musika talde afizionatu batek** teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17.
- **Urrezko belarririkoa galdu da.** Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21 tfnora. Saritua izango da.
- **Giltzak galdu nituen** Monterron aldean. 9 giltza kartera bati lotuta. Aurkitu badituzu, Arrasate Pressera ekarri. Eskerrik asko.
- **Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago aldera** Donostiara kotxez joaten den norbaitekin egongo ginateke. Tfnoa: 79 13 83.

# LANA

- **Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea.** Tfnoa: 79 99 17. M<sup>a</sup> Jesus.
- **Andre euskalduna gertu** umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Ostiral edo larunbatetan** ingelesa erakusteko norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- **23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 79 97 30.
- **Fisikako klase partikularrak emateko** fisikaria

# SALEROSKETAK

- **Eski alpino egiteko bota pare bat salgai.** 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- **Mendiko Camel bota pare bat (44 zenbakikoak)** salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- **Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke.** Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- **la berria dagoen akordeoia salgai.** 120 baxu. Beltza. Dei egin gaez 79 80 91 tfnora.
- **Kotxeko gurgipen kubieta bi salgai.** Oso egoera



## ARRASATEN HILDAKOAK



- Celedonia Etxabe Mondragon,** martxoaren 31n. 94 urte.
- Josefa Elorza Urzelai,** apirilaren 1ean. 84 urte.
- Atanasio Pelayo Gato,** apirilaren 2an. 74 urte.
- Josefa Lizaranzu Enbeitia,** apirilaren 2an. 88 urte.
- Jose Moreno Coronado,** apirilaren 22an. 78 urte.
- Juan Mari Otadui Astola,** apirilaren 6an. 76 urte.
- Ibon Abosolo,** apirilaen 6an. 20 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Ana Gil

### Hilbera tabernakoa

- **Kafea bazkalostean ala afalostean?** Bazkalostean.
- **Bezero bezala bikoteak ala kuadrilak?** Denetik, beti gauza bera ez behintzat.
- **Nolako musika?** Edozein modutakoa, eta tabernarako normalean lasaia.
- **Barran ala mahaira?** Mahaietara ez dugu zerbitzen.
- **Bezero erretzaileak?** Eskubide bat gehiago da, beste edozein bezala.
- **Txiklea ala gozokia?** Gozokia.
- **Kafea ala deskafeinatua?** Kafea.
- **Bizikletan ala ariñeketan?** Ariñeketan, bizikletan ez dakit eta.
- **Despedidak maite dituzu?** Leku on batetara doanarena, bai.
- **Gogoan hartu zenuen zerbait?** Lan aldaketa edo...
- **Kaletarra ala baserritarra?** Baserritarrak gutxi ezagutzen ditut. Sanoak dira, baina zakar samarrak ere bai.
- **Antiajuak ala lentilak?** Ez dut erabiltzen.
- **Bidai bat?** Oraintxe bertan, leku polit eta lasairen batera. Ura duena, e?
- **Bete ezindako amets bat?** Egingarria, euskaraz ondo ikastea, eta bestela gauzak ondo eramatea.
- **Amets, lotan ala iratzarri?** Lotan nahi baino gehiago egiten dut, baina iratzarri ere bai.
- **Poxpolaok ala txiskeroa?** Ez dut erretzen, baina saltzeko erosoagoa txiskeroa.
- **Haurra izatekotan, neska ala mutila?** Neskaitila.
- **Ondo ematen dizun kolorea?** Gustatu berdea gustatzen zait.
- **Bezeroa, ezaguna ala ezezaguna?** Denetik, ezagunekin eroso baina beste-lakoak ere behar dira.
- **Apartekorik esateko?** Ez, atsegina dela egiten duzuen lana.



# Bertsotan

## Euskadiko Txirrindularitza itzulia


1

Egun hauetan denon ahotan dabil txirrindularitza Euskadi mailan ospatzea bait da kategorizko ekintza goren-gorengo ziklista denak norgehiagoka dabilta benetan orain ikusiko da Euskal fruituen emaitza.

2

Itzuli honek Larraitz aldean izango du azken meta denok egongo gara orduan itxaropenez beteta baina emaitza nik aurrez diot jar ezazue arreta Julian Gorospe bigarrena ta txapelduna Lejarreta.

LEIRE BASAURI



## MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62





Ataulfo Argenta eta Albina Madinabeitia UCEMeko zuzendariekin, 1949.




Albina Madinabeitia Narciso Yepesekin, 1949.

# A

ste honetako  
argazkiek ia  
43 urte dituz-  
te. Unión  
Cerrajerak  
bere langile-

entzat antolatutako kontzertu egun  
baten atera ziren. Eta ez edozein  
kontzertu, 1949ko ekainaren 6an  
Madrileko Orkesta de Cámara etorri  
bait zen Beethoven, Vivaldi, Men-  
delssohn eta J. Rodrigoren obrak  
eskainiz. Goiko argazkian aurretik  
eta ezkerretik hasita **Ataulfo Ar-  
genta** Orkestraren zuzendaria, bere  
ondoan **Albina Madinabeitia**  
mondragoetarra, lehen bibolina,  
atzean, berriz, **Camilo Basterretxea**  
eta **Rikardo Azkoaga UCEMeko**  
Zuzendariak. Beheko argazkian  
**Albina Madinabeitia Narciso**  
**Yepes** kitarrajole ospetsuarekin.




## EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**  
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

# Gurutzegrama




## Horizontalak

1. Nafarroako Udala baten
8. +8= Arrasateko kalea
9. Ubehera
10. Gipuzkoako ibilgailuetan
11. Hori, kolore mota
13. Gipuzkoako Udala
14. Ditia eman
16. Alogeratua
17. Ezazi, epotxa
18. (Ald.) Portu, nasa

## Bertikalak

1. Zarata barik
2. Onerako irauin
3. Idi hitz elkartuetan
4. Listu, ttu
5. Iso
6. Laxoak
8. Ikus 7
10. Lehorra
12. (Ald.) Egunak 24 ditu
13. Denbora libre
15. Joan aditzaren erroa



JUAN BAUTISTA AGORRIA

# BIDEO-EMANALDIA

## Gremlins II

**Tokia:** Monterron Kultur Etxea


**Eguna:** apirilak 11, larunbata

**Ordua:** arratsaldeko 4.30etan

**Prezioa:** 50 pezeta

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



Mahaingurua

## Zenbat bide ditu bakeak?

Arrasaten pil-pilean dagoen gai beroa dugu BAKEA. Jon Sarasua moderatzaile dela, galdera horri erantzuten ihardungo dira herrian arazo horri buruz sentsibilitate desberdina duten hiru lagun. Asteartean iluntzeko 8.20an, Berriak Albistegiaren ondoren.

Telebista pribatuak sortu aurreko hilabeteetan, telebista publikoen monopolioa apurtzea ona izango zeneko ideia saldu zигuten. Eta neuk behintzat ideia hori neureganatu egin nuela aitortu behar dut, agian gaia gehiegi azertu barik. Geroztik horretaz dudan eritzia dexente aldatu da.

Telebista pribatuek ondorio txarrak ekarri dituzte, hala nola publizitatearen merkatua izorratzea, prezioekin zikin jokatuz, edota gizartearen alderik kutreena bistaratu, justifikatu eta sendotzea. Baina denetan txarrena telebista publikoak ere pribatuen dinamikan sarraraztea izan da. Besteak beste, normal bihurtu da telebista publikoen iharduera errentagarritasunaren arauera baloratzea. Eta hori astakeria hutsa da.

Kate publikoen ezinbesteko obligazioa da dirutan errentagarriak ez diren hainbat programa ematea, gizartearentzat interesgarriak edota beharrezkoak diren neurrian. Bestelako zerbitzu publikoak eman behar diren bezala, errentagarri ote diren begiratu gabe.

Azken finean, amorrutan ematen dit ordaintzen dituzdan zergen zati bat Jose Luis Morenori ordaintzeko erabilia izateak.

MIKEL IRIZAR

## Programazioa

12

### IGANDEA

9.15. **Mondragol.** Elgoibar-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

13

### ASTELEHENA

8, 8.30, 9. **Berriak.** ATBko albiste-emanaldia.

9.20. **Mondra Sport.** Arrasateko kirol-munduaren errepasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribesalgorekin.

9.50. **Asteko zinea:** Hamar aginduak.

14

### ASTEARTEA

8. **Berriak.** Egunean zehar jasotako notiziak.

8.20. **MAHAINGURUA: ZENBAT BIDE DITU BAKEAK?**

Bakearen inguruan dauden sentsibilitate desberdinak.

9.00. **Berriak.**

9.20. **Erreportaiak.** Aste honetako gaiak: "Institutoko Moda desfilea" eta "Pintadak: Paretent mintzoa".

9.50. **Asteko zinea:** Hamar aginduak.

15

### ASTEAZKENA

8, 8.30, 9. **Berriak.** ATBko albistegia.

9.15. **Txatxaran.** Maider Egués-ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Aste honetako gonbidatua: Orkatz Skaut Taldea.

9.50. **Asteko zinea:** Hamar aginduak.

21

### ASTEARTEA

8, 8.30, 9. **Berriak.**

9.20. **Erreportaiak:** 2.000. urterako errota Aramaixon.

9.50. **Asteko zinea:** Dirty dancing.

22

### ASTEAZKENA

8, 8.30, 9. **Berriak.**

9.20. **Txatxaran:** Gerardo eta Mikel eta kirolzaleak. Mondra Sporten aurkezleak.

9.50. **Asteko zinea:** Dirty dancing.

23

### OSTEGUNA

8, 8.30, 9. **Berriak.**

9.20. **ATBketan.**

9.50. **Asteko zinea:** Dirty dancing.

24

### OSTIRALA


8, 8.30, 9. **Berriak.**

9.20. **Ostiral Musikala.**

9.50. **Asteko zinea:** Dirty dancing.


### ASTE SANTUA

Guk ere oporrak! Oste-gunetik astelehenetara... eta mereziruta!!



## Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



# kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa  
caja gipuzkoa  
san sebastián